

5 X JAUNAREN GELA

Felixek Idoiaren haririk gabeko mezua irakurri ondoren, Pottolok Isolde garbitu nahi izan zuen, tximiniatik zehar ibiliz egindako hegadan jasotako kedarra kendu, alegia. Baina Felixek ez zion utzi.

—Utzi. Bera bakarrik garbituko da.

—Hori da —esan zion Kiki k.-ek—, nire katagorria ere bakarrik garbitzen da.

—Zertan ari ote da orain Idoia? —kezkatu Pottolok.

Idoiak etxe misteriosuan jarraitzen zuen. Eta une hartantxe, kontu handiz, ezkutaturik zegoeneko kutxaren tapa altxatu eta inguruak miatzen zituen. Dena lasai zegoen.

“Atea”, pentsatu zuen bat-batean Idoiak, sarraila zulotik argia sartzen zela konturatu zenean. Berehala, ate ondoan jarri eta sarrailatik begiratu zuen. Arnasa gelditu zitzaion. Oso gertu, bera zegoen lekutik pauso batzuetara, ezezaguna eseririk zegoen. Idoiak gizonaren gorputza mahai gainera makurtzen zela ikusi zuen, eta aurrean zuenari aditasun osoz begiratzen ziola.

Handik minutu batzuetara aireportuko atea bat-batean ireki zen eta Idoia azaldu. Eskubeltzekoak pozez saltoka hasi ziren, Idoia oso eta sendo itzuli zela ikustean.

—Zortea izan dut, mutilak! —oihu egin zuen neskak—. Pentsa, badakit zertan ari den X jauna.

☐ Zertan ari zen X jauna?

